


Ale hau zaharra bada ere, ez du gaurkotasun handirik galdu, eta ederki betetzen du bere zeregina: gai interesgarriak ezagutzera ematea; eta bide batez, gure ingelesa lantzen eta hobetzen laguntzea (aldizkariaren helburua hori berez izan ez arren). Beti bezala, gaiak era askotarikoak dira, eta oso interesgarriak, eta era ulergarri batez adierazita daude: gure burmuinaren sekretuak; artikulu eder eta nostalgiaz betetako bat Minneapolis, Wisconsin eta Minnesotari buruz; monografiko eder bat Florentzako Katedralari buruz (Santa Maria del Fiore); hurrenik, Italiatik Yukon aldera (Kanada) eramango gaitu, meatzaritzaren eta naturaren arteko oreka gorabeheratsua agerian jarritz; eta azkenik, bidaia Indian amaitzen da, Maha Kumbh Mela jai espiritual eta harrigarrian murgilduko gara eta.

Baina ingelesa lantzea ez da nahikoa. Gaur egun, itzulpen ugari dira gaztelaniara egin beharrekoak, dela euskaratik abiatuta dela ingelesetik, frantsesetik edo beste edozein hizkuntzatatik abiatuta. Hori dela eta, garrantzitsua da gaztelaniaz ere irakurtzea, eta literatura bakarrik ez, mota guztietako gaiak baizik, zeren, egia esan, auskalo zeri buruzkoa izango den posta elektronikoz bidaliko diguten hurrengo itzulpena, eta horregatik, komeni zaigu mota guztietako gaiekin eta terminologiekin ohituta egotea. Kasu honetan, hala ere, gaia bereziki aukeratu dut gure Europa zaharraz gehiago jakiteak kitzikatzen ninduelako.



Ale hau ere zaharra bezain interesgarria da, eta alearen izenburuak zerikusi handia du euskaldunok maite dugun gai batekin: sukaldaritzarekin, janari-ohiturekin, e.a. Bigarren gaiak ere garrantzi unibertsala du: arrantzategiak gehiegi ustiatzeak berekin dakartzan kalteak bai gizakiontzat bai beste espezie batzuentzat. Hirugarren gaian Jerusalem inguruko lurraldeak azaltzen zaizkigu, baina prisma berezi batetik begiratuta: erlijioaren eta aztarna zaharren ikuspegitik. Gero 3D inprimagailuen eskutik zabaldu den teknologia berria izango dugu hizpide. Eta jarraian beste gai globalizatu bat: zer egin sortzen ditugun hondakinekin. Eta bukatzeko, amerikarrei asko gustatuko zaien gai bat: Panpa-




ko (Argentina) "bagualeros" edo "cowboys" delakoei buruzko erreportaje bat, non agerian jartzen baita haien ohiturak eta batez ere haien bizimodu gogorra, basa-natura baten erdian.


Kasu honetan, gaia zinez originala da: historiako lapurretarik eta atrakurik ospetsuenak. Eta, noski, horien egileak. Kronologikoki antolatuta, munduan eta bereziki Frantzian nabarmendu diren hainbat gaizkileren biografiak eta gertaera gogoangarriak azaltzen zaizkigu elkarren jarraian: François Villon (poeta handia ere izan zena!), Louis Mandrin, Lyongo postaren afera, Drôme-ko lapur ankerrak, Pariseko “apache” izeneko gaizkile-taldeak (Belle Époque-koak), Mona Lisaren lapurreta, Arsène Lupin (kasu honetan fikziozko lapurrik onenetako bat), Amerikako gangsterrak (Al Capone gangsterra, Eliot Ness FBIko agente ospetsua), eta abar, eta abar. Garaian garaiko argazkiz, ilustrazioz eta mota guztietako dokumentuz josituta dator. Harribitxi bat, benetan.



Hona hemen beste SpeakUp bat. Ez dakit zenbat SpeakUp irentsi ditudan nire bizitzan, baina askotxo izan dira... Dakizuenetz, CD batekin dator, eta bertan jasotako elkarrizketa eta erreportajeetako asko audio batean entzuteko aukera ematen dizu. Tira, ahozko ingelesa lantzeko ez da tresna txarra. Egia esan, ni, Euskal Herrian bizi izanda, eta batere bidaiaria ez naizenez, ahozko ingelesarekin kontaktuan egoteko daukadan bide bakarretako bat da; bide gehiago badaude, dudarik ez, baina gehien erabiltzen dudana izango da ziur aski. Literatura-audioak ere badaude, noski, baina horrelako aldizkariak gehiago hurbiltzen zaituzte kaleko, ohiko ingelesera ( gehien interesatzen zaidan ingelesa idatzizkoa bada ere).

Filosofiak beti erakarri nau. Egia esan, orain dela urte asko, Filosofiako fakultatean eman nuen izena, eraikina Zorroagan (Donostia) zegoenean. Gogoko dut noizean behin filosofia-kontuei buruz irakurtzea. Aldizkari hau bi ataletan banatuta dago: lehen atalean, oinarrizko gaiak jorratzen dira: existentzia, gizakia eta mundua, arazoimena eta mundu erreala, politika, morala eta etika; eta bigarren atalean filosofo handiak jorratzen dira kronologikoki: Platon, Aristoteles... Sartreaino. Tamaina handiko ia 200 orrialde ditu, artikulua laburrak dira luzeak baino, eta gustura irakurtzen dira, neke handirik gabe.





Eta amaitzeko, beste National Geographic zahar bat (2012. urtekoa). Ohiko argazki ederrak eta berauei buruzko erreseinak ekartzeaz gain, monografiko zabal bat ere badakar apostoluei buruz, ikuspegi unibertsal batetik abiatuta eta fedearen erroak zeinen luzeak diren agerian utziz. Horrez gain, Arabiako Itsasoan bizi diren animaliak, glaziarrek han-hemen utzitako arroka erraldoiak, Errinozeroen aurkako eta aldeko borroka (armatua), eta Marseilla hiria oinarritzat hartuta herri-kultur ezberdinen arteko nahasketa eta hortik datozen argilunak dira gainerako erreportajeetan jorratzen diren gaiak.